

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak atseginez gonbidatzen zaitu Jardunaldiotara:

HIZKUNTZA-POLITIKAZ ETA KOMUNIKAZIOAZ JARDUNALDIAK

Trebakuntza-saio praktikoak.

Abenduaren 9an: Hizkuntza-politikaren egoera Araban eta Euskal Herrian.

Abenduaren 16an: euskalgintzaren komunikazio-erronkak.

Hizlaria: Iñaki Lasa, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko Ildo Politiko-instituzionaleko burua.

Nori zuzendua: Edonori. Bereziki, Euskalgintzako eragileak eta ordezkariak eta Araban hizkuntza-irizpideak erabakitzen eta ezartzen diharduten administrazio-langileak eta hautetsiak.

Doan.

Euskaraz.

Ordua: arratsaldeko 7etatik 8etara.

Lekua: Gasteizko Ignacio Aldecoa kultura-etxea (Floridako Ibilbidea, 9).

Zer da hizkuntza-politika? Zerk definitzen du euskararen normalizazioa?

Erantzuten al dio etengabe komunikatzen dugunak gizartea eraldatzeko eta euskara normalizatzeko helburuari? Zerk estimulatu ditu arabarrak hizkuntza hautatzerakoan?

Gai horietan argia emateko borondatearekin dator Kontseiluak Gasteizen abenduaren 9rako eta 16rako antolatu duen trebakuntza-eskaintza irekia, eguneko ordubeteko saio banarekin. Bi egunetako saioak osotasun bereko zati dira, ordea.

Euskalgintza milaka pertsona saretzen duen herri-mugimendua da. Mota guztietako profesional espezializatuak ditu, milaka zale konprometitu, eta masa handiak mobilizatzen ditu. Hizkuntza-politikak, berriz, saihestezinezko elementu dira herri-gogoia beharrezko plangintzaz, baliabidez eta corpus juridikoz osatzeko.

Premiak eta gaitasunak balioan jarri, uztartu, eta aukerak esploratzeko bidea erakutsiko du formazio-programa honek.

Abenduaren 9ko saioan, hizkuntza-politika orokorra eta hizkuntza-politika egokiaren ezaugarri nagusiak izango dira hizpide. Gainera, politika aplikatuaren datuen gainean egingo da lan: Arabako Hizkuntza-politikaren gakoak, problematika eta erronkak.

12 panelek osatutako erakusketa ere jarriko da egun horretan ikusgai, hizkuntza-politikaz maiz argitaratzen ez diren datuak bisitariaren esku jartzeko.

Abenduaren 16ko tailerrak komunikazio eragingarriaren giltzarriak ezagutaraziko ditu. Euskararen gizarte-mugimendu antolatuaren komunikazio-estrategia komunak, euskararen normalizazioaren aldeko portaera egokiak sustatzeko, izan beharko lituzkeen ezaugarriak eta irizpide nagusiak aletuko dira, egungo aldaketa sozialari egokitura.

Orain arte, arnaguneekin –edo euskararen espazio geografiko hegemonikoekin– muga-mugan dauden herrietan bideratu izan ditu Kontseiluak tailer pedagogiko hauek, arrakasta ohargarritz; Gasteiz aurrenekoa izango da euskal hiriburuetan saio hauek hartzen, Arabako Foru Aldundiak luzatutako babesari esker.